



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)

Deialdia eta oinarriak, Erizain plaza bat (1) txanda irekian oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko. Plazaren ezaugarriak: 3.2 kodea, A2 azpitaldea, 21. Ordainsari-maila eta 3. HE ez-nahitaezkoa.

Presidentetzaren 2022ko abenduaren 21eko 0580/2022 Ebazpenaren bidez, Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroaren 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza eta aldi baterako enplegua egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu ziren. Ebazpen horretan, 2022ko ekitaldiari dagokion Enplegu Publikoaren Eskaintzan sarbide libreko sistemaren bidez bete beharreko plaza hau jasotzen da:

Lanpostuaren kodea	Lanpostuaren izena	Azpitaldea	Lanpostu-kopurua	HE
3.2.	ERIZAINA	A2	1	3., EZ-NAHITAEZKOA

Presidentetzaren 2024ko azaroaren 27ko 501/2024 Ebazpen bidez, bestalde, Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroan karrerako langile lan-kontratudun finko izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi ziren.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gai guztiei dagokienez, Presidentetzaren 501/2024 Ebazpenean xedatutakoari jarraituko zaio, 2024ko azaroaren 27koa, presidentearena, Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroan langile lan-kontratudun finkoa izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituenak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, talde, azpitalde eta lanbide-kategoria bakoitzeko plaz(ar)en deialdia arautuko duten oinarri espezifikokoak argitaratu behar dira, plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztuta.

Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dugu deialdi honen xede den plazak ez dakarrela I. kapituluko gastua handitzea, une honetan bitarteko langile batek betetzen baitu plaza, eta 2024ko ekitaldiaren hasieran onartutako baimenean eta erabileran sartuta baitago.

Aurreko guztia kontuan izanik, Etxe Maitia Udal Egoitza erakunde autonomoaren presidentearen eskumenak aintzat hartuta, eta, betiere, Etxe Maitia Udal Egoitza erakunde autonomoaren estatutuetako 14. artikuluan xedatutakoaren arabera (2004ko urriaren 22ko 205. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, eta, gerora, aldatu eta 2011ko azaroaren 9ko 213. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Oinarri hauen xede diren hautaketa-proben deialdia egitea.

Bigarrena: Erizain plaza bat (1) txanda irekian oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautu behar duten oinarri espezifikokoak onestea- plazaren ezaugarriak: 3.2 kodea, A2 azpitaldea, 21. ordainsari-maila eta 3. HE ez-nahitaezkoa.

Hirugarrena: Oinarri espezifikokoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, baita Estatuko Aldizkari Ofizialean horien laburpen bat ere.

Laugarrena: Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik



zenbatzen hasita, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikulua eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua aintzat hartuta.

Basaurin, 2024ko abenduaren 9an. —Lehendakaria, María Larrinaga



**ERIZAIN PLAZA BAT (1) TXANDA IREKIAN OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ
BETETZEKO OINARRIAK. PLAZAREN EZAUGARRIAK: 3.2 KODEA, A2 AZPITALDEA,
21. ORDAINSARI-MAILA ETA 3. HE EZ-NAHITAEZKOA**

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroan erizaintzako plaza bat oposizio-lehiaketa libreko sistemaren bitartez betetzeko deialdia arautzea. Plaza hori lan-kontratudun langile finkoentzat gordeta dago, 2022ko abenduaren 30eko 248 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio.

Deialdiko plaza-kopurua handitu ahal izango da sortzen diren eta presidentearen ebazpen bidez deialdi honetan sartzen diren lanpostu hutsen ondorioz. Plaza-kopuruaren handitze hori, hala badagokio, gainditu duten hautagaiei zerranda argitaratzeko izapidearen aurretik egin beharko da.

Izendatzen ez diren hautagaiekin lan-poltsa bat eratuko da, lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Lan-poltsa hori antzeko lanak edo lanpostu berekoak aldi baterako egiteko erabiliko da, hamalagarren oinarrian xedatutakoari jarraikiz.

Bigarrena. — Lanpostuaren ezaugarriak

- Araubide juridikoa: langile lan-kontratudun finkoa.
- Plaza-kopurua: 1.
- Saikapen-taldea: A2.
- Ordainsari-maila: 21.
- Lanpostuaren izena eta kodea: erizaina, 3.2 kodea.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3. HE, ez-nahitaezkoa.

Hirugarrena. — Lanpostuaren eginkizunak

Eginkizun orokorrak:

1. Aurreko arratsaldeko eta gaueko txanden gertakarien partea egitea.
2. Egoiliarrei erizaintza-prozedurak aplikatzea haien bilakaera kontrolatzeko, anomaliak antzemateko eta, hala badagokio, neurriak hartzeko:
 - Odola ateratzea eta laginak hartzea.
 - Odoleko glukosa-maila neurtzea (Dx), ziztada kapilar bidez.
 - Egoiliarren DPSa kontrolatzea.
 - Egoiliar bakoitzari dagokion medikazioa banatzea eta ematea: askotariko botikak, intsulina, kolirioak, inhalagailuak eta abar.
 - Ohean dauden guztien ura kontrolatzea eta betetzea.
 - Hala behar duten egoiliarrei oxigenoa jarri eta kentzea, eta atezainari jakinaraztea, bonbona berriak behar badira.
 - Egoiliarrei zenbait motatako zundak jartzea.
 - Egoiliarren bizi-konstanteak, odol-analisiak, EKGak... kontrolatzea, aldian-aldian.
 - Zenbait sendaketa egitea.
 - Aerosolterapia.
 - Noizean behin, zeregin espezializatuagoak egitea: kolostomiak, urostomiak, drainadurak eta peritoneo-dialisiak zaintzea eta horien jarraipena egitea eta abar.
 - Behar izanez gero, bizkortze-teknikak aplikatzea
3. Zeregin burokratikoak:
 - Atezainari beharrezko botiken zerranda ematea.
 - Zigilua behar duten errezetak, anbulantzietarako bolanteak eta abar ematea.



- Espezialisten kontsultak prestatzea, egoiliarrak anbulantzian eramateko eska-bideak beteta.
 - Errezetak betetzea.
 - Hurrengo txandakoentzako gertakarien parteak egitea.
 - Egoiliarrari, haren senitartekoei edo laguntzaileei kontsulten eta osasun-pro-ben berri ematea.
4. Egoiliar bakoitzaren dieten berri ematea Sukaldaritza Zerbitzuari eta laguntzaileei.
 5. Medikuen bisitetan laguntzea: kontsulta antolatu eta koordinatzea eta, gero, hura erregistratzea.
 6. Farmaziarako eskaerak eta hileko pixoihalenak egitea Farmazia Ikuskaritzan, eta erabilitako botiken izakinak kontrolatzea.
 7. Laborategirako beharrezkoa den materiala prestatzea, goizeko txandak dena prest eduki dezan.
 8. Goragoko batek agindu eta erizainen eskumenekoa den beste edozein eginkizun egitea.

Laugarrena. — Baldintzak

Presidentetzaren 2024ko azaroaren 27ko 501/2024 Ebazpen bidez onetsitako oinarri orokorretan xedatutakoez gain, honako hauek ezartzen dira:

- Erizaintzan Diplomaduna/Graduduna izatea. Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiak titulua baliozkotuta dutela egiaztatu beharko dute, edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea badutela.
- Azterketa egiteko eskubideei dagokien tasa ordaindu izana. A2 azpitalderako tasa-ren zenbatekoa 18,60 euro da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkeztea**5.1. Epea**

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabide normalizatuak hogeita (20) egun balio-duneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi honen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5.2. Eskaeraren baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskaera, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://www.sede.basauri.eus>) esku-ragarri dagoen eskaera-orria beteta.

Baliabide propiorik izan ezean, Udalak aurrez aurreko arretarako gune bat prestatuko du, eta izapideak egiteko behar diren baliabide informatikoak jarriko ditu hautagaiaren eskura, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

Hautagaiak eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

Horretarako, eskabidean, dagozkien ataletan, hautagaiak honako hauek adierazi beharko dituzte:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio-fasearen ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartzeko baldintza gisa alegatutako eta eskatutako titulazio aka-demiko ofiziala.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, halakorik badute. Bestela, hizkuntza-eska-kizuna bigarren ariketari buruzko hamargarren oinarrian ezarritako moduan eta epean egiaztatu ahal izango dute.
- Hautaketa-prozesuari buruzko argibideak edo informazio-eskaerak posta elektro-nikoz egingo dira, eskaera-orriarekin batera emango den helbidean.

**Seigarrena.— Dokumentuak aurkeztea****6.1. Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa**

Hamaikagarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa (laugarren oinarrian dagoena) hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztu beharko da.

Norbaitek oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu ezarritako epearen barruan, edo, dokumentazio hori aztertu ondoren, laugarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroan lan-kontratadun langile finko edo praktikaldiko langile izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, eta horrek, gainera, ez du eragotziko hasierako eskabidean gezurra esateagatik izan dezakeen erantzukizuna.

Ez da beharrezkoa izango Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroko langileen espedientean lehendik dauden dokumentuak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da epe barruan alegatzea.

6.2. Dokumentuak itzultzea eta konpultsatzea

Espainiako nazionalitatea ez dutenek aipatutako dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, euskarara edo gaztelaniara itzulpen ofiziala eginda. Itzulpen hori dagoen kontsulatuak edo bulego diplomatikoak baliozkotutako zinpeko itzultzaile batek egin beharko du.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, jatorrizkoak edo kopia konpultsatutako aurkeztu beharko dira, 6.1 oinarrian in fine xedatutakoaren arabera beharrezkoa ez denean izan ezik.

Zazpigarrena.— Hautagaiak onartzea

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda onetsiko da Presidentetzaren ebazpen bidez, baztertzeko arrazoiak ez ezik, eskabideetan dauden akatsak edo omisioak zuzendu behar diren kasuak ere adierazita. Aipatutako ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Akatsen edo omisioen zuzenketa eskatzeko edo onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea 10 egun balioduneko izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbaitzen hasita. Horren ondoren, Presidenteak beste ebazpen bat emango du onartutakoaren edo baztertutakoaren behin betiko zerrenda onesteko, eta ebazpen hori ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki.

Hautaketa-prozesurako hautagai bat onartzeak ez du esan nahi Administrazioak ezin duenik hautagairik baztertu, baldin eta egiaztatzen bada onartzeko eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen. Kasu horretan, interesdunari entzun ondoren, hala badagokio, ebazpen-proposamena egingo dio epaimahaiak Presidenteari, dagokion hautagaia prozesutik kanpo utz dezan.

Probak egiten diren egunean ez badira ebatzi onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrendak onartzen dituen Ebazpenaren arabera prozesutik kanpo dauden hautagaiak aurkeztutako errekursoak, egoera horretan dauden hautagaiak probak egin ahal izango dituzte, kautelaz; baina hautagai horien errekursoak ezesten badira, probek ez dute baliorik izango.

Zortzigarrena.— Epaimahaia

8.1. Presidentetzaren ebazpen bidez zehaztuko da hautaketa-epaimahaiko kideen izendapena, baita lehen ariketa non, noiz eta zer ordutan egingo den ere.



8.2. Epaimahaiaren osaera bat etorriko da urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean ezarritakoarekin. Epaimahaia honela osatuko da: epaimahaiburu bat, idazkari bat eta lau kide. Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazio akademikoa edo goragoko mailakoa izango dute kide guztiak. Epaimahaikide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik: idazkariak hitza izango du, baina ez botorik. Epaimahaiaren osaerak bat etorri beharko du kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioekin, eta emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna ere aintzat hartuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Epaimahaikideen artean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendatutako kide bat egongo da.

8.3. Epaimahaiak erabaki ahal izango du bere lanetan aholkulari espezialistak sarzea hautaketa-prozesuak dituen proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariek, hala ere, beren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.4. Epaimahaiko kideek ez dute epaimahaiaren parte hartuko, eta hala jakinaraziko diote Presidenteari, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada. Lege beraren 24. artikuluekin bat etorrita, hautagaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada.

8.5. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdi guztietan, epaimahaiaren jardueira-prozedura bat etorriko da presidentek emandako 2024ko azaroaren 27eko 501/2024 Ebazpen bidez onetsitako Oinarri Orokorretan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena. — Deialdiak eta jakinarazpenak

Alkateak eta epaimahaiak deialdiari, emaitzei, kalifikazioei eta bestelako jakinarazpen eta ebazpenei buruz hartutako erabakiak Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroko iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean argitaratuko dira, alde batera utzi gabe egoki irizitako beste edozein publikitate-modu.

Hamargarrena. — Hautaketa-prozesua

10.1. Oposizio-aldia. Puntuak banatzea

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

Oposizio-aldian proba bi egingo dira: lehenengoa, derrigorrezkoa eta baztertzailea, eta, bigarrena, aukerakoa eta ez-baztertzailea.

10.1.1. Lehenengo proba (derrigorrezkoa eta baztertzailea)

Teoriko-praktikoa izango da, eta zati bi izango ditu:

- A zatia: galde-sorta, erantzunak aukeran, oinarri espezifiko hauetako I. eranskinen dagoen gai-zerrenda orokorrari buruz. Ariketaren azken puntuazioa 0-10 bitartekoa izango da, eta hamarreko bi onartuko dira. Beraz, baztertuta geratuko dira 5 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten izangaiak.
- B zatia: galde-sorta, erantzunak aukeran, oinarri espezifiko hauetako I. eranskinen dagoen gai-zerrenda espezifikoari lotutako kasu teoriko-praktikoei buruz. Ariketaren azken puntuazioa 0-60 bitartekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira. Edozelan ere, baztertuta geratuko dira 30 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten izangaiak.

Lehenengo ariketaren kalifikazioa izango da ariketaren zati bietan lortutako puntuen arteko batura. Proban, gehienez ere, 70 puntu lortu ahalko dira (0-10, A zatian, eta 0-60,



B zatian). Txarto dagoen erantzun bakoitzeko zuzen dagoen erantzun baten herena kenduko da, eta baztertuta geratuko dira proban, orotara, 35 puntu edo gehiago lortzen ez dituztenak.

Behin proba eginda eta epaimahaiak hala erabaki ostean, erantzun zuzenak argitaratuko dira, oinarri orokorretan adierazitako lekuetan.

10.1.2. Bigarren proba: euskara

Borondatezkoa eta ez-baztertzaila. 3. HEaren mailako euskara-egaztza egiaztatzean datza.

Euskara-proba egitetik salbuetsita egongo dira prozesua hasi aurretik epaimahaiaren egiaztatzen dutenak honako egoera hauetako batean daudela egiaztatzen dutenak:

1. 3. HEa, goragokoa edo horien baliokidea den bat edukitzea, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
2. Proba egitetik salbuetsita egotea, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna honela egiaztatuko da:

- a) IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiri edo tituluak dituztenen kasuan, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orrian ziurtagiriak egiaztatzeko baimena eman ahalko diote Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroari.

Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez beste ziurtagiri batzuk dituztenek, Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroari egiaztatzeko baimenik ematen ez dietenek edo ziurtagiria ostean lortzen dutenek alegatutako tituluaren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-probak egin aurretik.

- b) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizunaren proba egitetik salbuetsita daudenek ikasketak osorik edo zati batean euskaraz egin izanagatik hala alegatu beharko dute eskabide-orrian, eta, euskara-proba egin aurretik, ikasketak amaitu dituzten zentro edo unibertsitatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

10.2. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasean, 30 puntu lortu ahalko dira, gehienez ere. Puntu horiek lortuko dira honako baremo hauen arabera lortutako batura eginda:

- a) Eskarmentua: gehienez ere, 10 puntu

Edozein administrazio publikotan (deialdia egiten duena barne) hautaketa-prozesuaren xede den lanpostuaren pareko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeko postuetan emandako zerbitzuak, lanpostu horiek funtzionarioarenak ala langile lan-kontratudunarenak izan.

Gehienez ere, 10 puntu eskuratu ahalko dira, baremo honen arabera:

- Erizain kategorian, A2 azpitaldean, edozein administrazio publikotan (deialdia egiten duena barne) emandako zerbitzuengatik: 0,0023 puntu, lan egindako egun bakoitzeko.

Puntuak zenbatuko dira entitate bakoitzean lan egindako aldiak batuta. Edozelan ere, lanaldi partzialean edo jornada murriztuan lan egindako aldiak jardunaldi osoko moduan zenbatuko dira. Ezingo da eguneko kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.



- b) Ikasketak. Gehienez ere, 8 puntu lortu ahalko dira, honako merezimendu hauen-gatik:
Deitutako lanpostuen eremu funtzionalari lotutako eta entitate ofizialek (Administrazio Publikoaren eskola edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, profesionalen elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak): 0.034 puntu, jasotako klase-ordu bakoitzeko.
- c) Euskararen ezagutza.
Euskararen ezagutza bakar-bakarrik baloratuko da derrigortasun-datarik eduki ez eta, beraz, nahitaezkoa ez den postuetan. Hauxe izango da baloratzeko bare-moa:
- 1. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu.
 - 2. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.
 - 3. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

Hamaikagarrena. – Prozesuaren emaitza eta agiriak aurkeztea

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa zehazteko, ariketetan lortutako puntuazio guztiak batuko dira (betiere, gainditu badira). Berdinketarik egonez gero, oposizio-aldiko lehen ariketaren (b) zatian puntu gehien lortu dituenaren alde egingo da.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroko iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean argitaratuko ditu gainditutako pertsonen behin-behineko kalifikazioak (bederatzigarren oinarria), lortutako guztizko puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta berariaz adieraziko du zer pertsona hautatu diren. Hautatutako pertsonen kopurua ezingo da izan deialdiko plazena baino handiagoa.

Gainditu duten hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki iriztitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak, halakorik bada, ebatzi ondoren, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Jarraian, epaimahaiak praktiketako lan-kontratudun langile finko izendatzeko proposatutako hautagaien zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea irekiko du pertsona horiek, dokumentu konpultsatuen bidez, laugarren oinarrian jasotako parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiazta dezaten. Halaber, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Hautagai atzerritarrek Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroaren jakinarazpen bat jasoko dute eta, jakinarazpen horretan, beren egoeraren arabera nahitaez aurkeztu behar dituzten agiri zehatzak aipatuko dira.
- c) Zinpeko aitorpena, non adieraziko baita hautagaia ez dagoela funtzio publikoak betetzeko ezgaituta eta ez dagoela diziplina-espedita bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik bereizita, ez eta Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako legezko ezgaitasun- edo bateraezintasun-arrazoi batean sartuta ere.
- d) Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, non adieraziko baitute beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ez dutela.
- e) Hautatutako pertsonak egiaztatu beharko dute ez dutela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik. Hori egiaztatzeko, dagozkion proba eta azterketa medikoak egin beharko dituzte Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroak dituen lan-osasuneko zerbitzuetan. Lanpostuan jar-



duteko gaitasun funtzionala egiaztatzeko proba eta azterketa medikoak egiteko deialdia modu pertsonalizatuan egingo da.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautagaiek ez badute beren dokumentazioa aurkezten edo ez badute egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, ezin izango dira izendatuak izan, eta dagozkien jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira, alde batera utzi gabe hasierako eskaeran gezurra esateagatik izan ditzaketen erantzukizunak. Kasu horretan, ordeztu egingo dira hautaketa-prozesuaren emaitzaren puntuazio-ordenari jarraituz, adierazitako dokumentuak aurkeztu ostean.

Hamabigarrena. — *Praktika- eta prestakuntza-aldia*

Sei hilabeteko praktika- eta prestakuntza-aldia egingo da, Presidentetzaren azaroaren 27ko 501/2024 Ebazpenaren bidez onetsitako oinarri orokorren hamaikagarrenean ezarritakoaren arabera.

Hamahirugarrena. — *Izendatzea eta plazaz jabetzea*

Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroko lan-kontratudun langile finko izendatzea Presidentetzaren azaroaren 27ko 501/2024 Ebazpenaren bidez onetsitako oinarri orokorren hamabigarrenean ezarritakoaren arabera egingo da.

Hamalagarrena. — *Aldi baterako lan-poltsak*

Hautaketa prozesu honen emaitzarekin, lan-poltsak egingo dira. Printzipioz, 3 urteko iraunaldia izango dute, eta oposizio-aldiko ariketak gainditu dituzten izangaiak jasoko dituzte. Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroko lan-poltsen araudiaren arabera kudeatuko dira, eta lehenetsuna izango dute dagoeneko existitzen diren lan-poltsen gainean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraituta eta lan-eskaintza publikoaren ostean egindako lan-poltsak agortzen badira, oposizio-aldiko lehen ariketaren (b) zatia gainditu duten izangaien zerrendek, lortutako puntuen hurrenkeraren arabera antolatuta, lehenetsuna izango dute beste lan-poltsen gainetik.

Hamabosgarrena. — *Datu pertsonalak babestea*

Hautaketa-prozesuan bildutako edo sortutako datu pertsonalak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskaera-orrietan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko erabiliko da, baita bitarteko lan-kontratudunak aldi baterako kontratatzeke eta izendatzeko osatzen den lan-poltsa kudeatzeko ere.

Deialdiko plazak lortu nahi dituztenek berriaz eman behar dute adostasuna segurtasun-neurriak behar dituzten eta hautaketa-prozedurarako beharrezkoak diren datuak tratatzeko.

Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio publiko batzuei laga ahal izango zaizkie, hala eskatzen badute. Titular diren datu pertsonalen lagapen hori egitea nahi duten hautagaiek berriaz eman beharko dute baimena.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenen informazio-eskubidea bermatze aldera, prozesuko zerrendak Internet bidez kontsultatu ahal izango dira, lehen aipatutako Basauriko Udalaren helbide elektronikoa, baita Etxe Maitia Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroko iragarki-taulan ere.

Eskaera-orrian adierazitako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa baliozkotzat joko dira. Eskaera egiten dutenen erantzukizuna da, ez beste inorena, datu zuzenak ematea eta Epaimahaiari horien gaineko aldaketan berri jakinaraztea.

Egin beharreko jakinarazpenetarako, eskabidean adierazten dena hartuko da jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada gerora beste bat jakinarazten zaiola deialdia egin duen agintaritzari, berriaz eta modu frogagarri batean.



Hamaseigarrena.— Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortutako zalantzak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala egiteko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdi guztietan.

Deialdi hau, deialdiaren oinarriak eta horietatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epean eta moduan.

**I. ERANSKINA****GAI-ZERRENDA****Zati orokorra**

1. gaia: Espainiako 1978ko konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Euskal Herriaren eskumenak: esklu-siboak, legegintzakoak eta betearazpenekoak.
3. gaia: Basauriko Udalaren antolaketa. Araudi organikoak.
4. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Auto-nomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta bete-beharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea (EHAA, 76. Zenbakia, 2004ko apirilaren 23koa).
5. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. I. titulua: xedapen orokorrak. II. titulua: prestazioak eta zerbitzuak, funtzioen eta lurraldearen an-tolamendua, eta plangintza gizarte zerbitzuen euskal sisteman.
6. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
7. gaia: Egoitza Laguntzarako Zentroaren arreta integraleko eredia, pertsonan ar-datzutakoa.
8. gaia: 41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa. Eta osteko aldaketak: 125/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, adin-tsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko dekretua aldatzen duena; eta Eusko Jaurlaritzaren 195/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizar-te-zerbitzuei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
9. gaia: 138/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, besteren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru sareko zentroen barne erregimeneko araudiaren eredia onesten duena.
10. gaia: 40/1998 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, martxoaren 10ekoa, Euskal Au-tonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuska-pena arautzeko dena
11. gaia: 7/2014 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, mendetasuna duten pertsonen-tzako egoitzen foru zerbitzu publikoan sartzeko araubidea eta zerbitzu hori egonaldi iraunkorrean emateko baldintzak arautzen dituena.
12. gaia: 03/2012 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoan mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru sareko egoitza-unitate soziosanita-rioetara sartzeko araubidea ezartzen duena.

Gai espezifikoak

13. gaia: Egoitza Arretarako Zentroaren Esku-hartze Plan Indibidualizatua.
14. gaia: erizaintzaren kode deontologikoa. Sekretu profesionala.
15. gaia: erizaintzako zaintzen etika eta balioak. Bioetikaren printzipioak.
16. gaia: diziplina anitzeko lana. Erizainaren eginkizunak lantaldearen barruan.
17. gaia: arreta-kalitatea, kalitatea erizaintzan.
18. gaia: geriatría eta gerontologia. Kontzeptuak, eremuak eta garapena.
19. gaia: zahartze-prozesua. Zahartzaroari buruzko teoriak: biologikoak, psikologi-koak eta sozialak. Gizartearen zahartzea eta horren ondorioak.
20. gaia: erizainaren zereginaren ezaugarriak adinekoen arretan. Adineko osasun-tsuak. Erizaintzaren alorreko zaintzak.



21. gaia: erizaintzaren balorazioa zahartzaroaren berezko aldaketek adinekoaren beharrianak asetzean duten eraginari buruz, Virginia Hendersonen erizaintza-ereduaren arabera.

22. gaia: erizaintza-balorazioa. NANDA diagnostikoak, adinekoaren eta desgaitasun intelektuala duen pertsonaren beharrian guzti-guztiak asetzeari lotuta.

23. gaia: erizaintza-balorazioa. Zaintzen plana eta erizaintzaren alorreko balizko NIC esku-hartzeak, adinekoaren eta desgaitasun intelektuala duen pertsonaren beharrian lotuta.

24. gaia: erizaintza-balorazioa. Helburuak (espero diren emaitzak). NOC erizaintzan egon daitezkeen emaitzak, adinekoaren eta desgaitasun intelektuala duen pertsonari lotuta.

25. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak sistema muskuloeskeletikoan asaldua duten adinekoen kasuan. Patologia ohikoenak. Osteoporosia, artrosia eta artritis erreumatoidea. Hausturak. Aldakan eta/edo belaunean protesia duen pertsona mugitzea.

26. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak funtzio kardiobaskularrean asaldua duten adinekoen kasuan. Bihotz-patologia eta patologia baskular ohikoena. Hipertentsio arteriala, bihotz-patologia, arritmiak, sindrome koronario akutua, zainetako tronbosi sakona, gorputz-adarren iskemia kronikoa.

27. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak arnasketan asaldua duten adinekoen kasuan. Patologia ohikoenak. Arnas-gutxiegitasun akutua, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, infekzio-prozesuak, pneumonia.

28. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak sistema gastrointestinalean asaldua duten adinekoen kasuan. Patologia ohikoenak. Gastroenteritisa, hantura-prozesuak, hesteetako butxadura, pankreatitisa. Nutrizioaren asaldua.

29. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak sistema endokrino eta metabolikoan asaldua duten adinekoen kasuan. Patologia ohikoenak. Diabetesa, hipo eta hipertiroidismoa.

30. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak nerbio-sisteman asaldua duten adinekoen kasuan. Zentzumen-asalduak. Patologia ohikoenak. ACVa, Alzheimerra, epilepsia, ELA, Parkinsona.

31. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak sistema genitourinarioan asaldua duten adinekoen kasuan. Patologia ohikoenak. Gernu-infekzioak, gernu-butxatze akutua, giltzurruneko gutxiegitasun akutua eta kronikoa.

32. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak buruko nahasmenduak dituzten adinekoen kasuan. Prozesu ohikoenak. Eskizofrenia eta beste asaldu psikotiko batzuk, antsietatea, gogo-aldartearen asalduak, depresioa.

33. gaia: sindrome geriatriko ohikoenak: gelditasuna, inkontinentzia, nahaste akutua, insomnioa, isolamendua eta deserrotze soziala. Balorazioa. Prebentzioa. Erizaintzaren alorreko zaintzak.

34. gaia: presioaren ondoriozko ultzerak eta baskularrak. Etiologia. Sailkapena. Balorazioa. Prebentzioa. Erizaintzaren alorreko zaintzak. Jardute-protokoloa presioaren ondoriozko ultzeren kasuan.

35. gaia: medikazioa, adinekoen kasuan. Aldaketa farmakozinetikoak. Medikazioaren arazoak, adinekoen kasuan. Kontrako eraginak. Jardute terapeutikoaren protokoloa eta medikazioa kudeatzea.

36. gaia: erizaintzaren alorreko zaintzak bizitzaren amaieran. Arazo nagusiak. Mina. Zainketa aringarriak. Arreta-protokoloa bizitzaren amaieran.

37. gaia: heriotza adineko pertsonetan: heriotzaren bizipena, dolua. Laguntza ematea zainzaile nagusiar eta familiari. Heriotza-protokoloa.

38. gaia: adinekoen eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen egoera bereziak modu eraginkorrean kudeatzea: erortzeak, nora ezean ibiltzea, murrizketak, bizikidetzara-arazoak, oldarkortasuna. Zainzailearen eta mendekotasuna duen pertsonaren arte-



ko harremanak, eta tratu txarrak prebenitzea. Erortzeak, agitazio psikomotorra, murrizketa fisiko eta farmakologikoak eta tratu txarrak prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa.

39. gaia: desgaitasun intelektuala duten pertsonak. Definizioa, sailkapena, intzidentzia eta arazoaren esanahia. Etiologia.

40. gaia: desgaitasun intelektuala duten pertsonen zaurgarritasuna, nahasmendu mentalei dagokienez.

41. gaia: familiaren papera, Gizarte Zerbitzuekin duten harremana. Familiarentzako arreta jarraituaren protokoloa.

42. gaia: adinekoen eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen balorazioa egiteko gehien erabilitako eskalak. AIP Arreta Indibidualizaturako Plana egiteko derrigorrezko eskalak.

43. gaia: elikadura eta nutrizioa hirugarren adinean: nutrizio-eta kaloria-beharrizanak. Funts-gaien beharrizanak. Beharrian hidrikoak eta bitaminenak. Mineralen beharrizanak. Nutrizio- eta hidratazio-protokoloa.

44. gaia: loa eta bere asalduek: zahartzaroak dakartzan aldaketa fisiologikoak. Zaharztearen ondoriozko asalduek. Insomnioaren arazoak. Terapia farmakologikoa.

45. gaia: ariketa fisikoa eta zahartzea: kontzeptua. Ariketa fisikoak adineko pertsonari dakartzkion onurak. Ariketa fisikoaren indikazioak eta kontraindikazioak.

46. gaia: hipertentsio arteriala: zahartzaroak dakartzan tentsio-aldaketak. Hipertentsio arterialak hirugarren adinekoen artean duen intzidentzia. Hipertentsio arterialaren etiologia. Prebentzioa eta erizaintza-kontrola.

47. gaia: adineko pertsonaren aho-patologia: haginaren zahartzea. Aho-mukosa: adinak eragindako aldaketak. Aldaketak guruinetan eta listu-funtzioan. Adinekoen aho-zaintza.

48. gaia: bakterio-jatorrizkoak ez diren elikadura-toxiinfekzioak. Bakterio-jatorrizkoak ez diren elikadura-intoxikazioak. Enterotoxina estafilokozikoko infekzioak. Beherako birkioak. Elikadura-intoxikazioetarako profilaxi orokorra.

49. gaia: lan-osasuna. Ergonomia: eremu soziosanitarioan zamak kudeatzea. Lanaren eta osasunaren arteko harremana.

50. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa. I. kapitulua: xedea, aplikazio-eremua eta definizioak. II. kapitulua: arriskuen prebentzioaren alorreko politika, lanean segurtasuna eta osasuna babesteko. III. Kapitulua: eskubiak eta betebeharrak.

51. gaia: komunikazio-teknikak eta -gaitasunak: ahozko komunikazioa eta hitzez kanpoko komunikazioa, entzute aktiboa. Hasierako balorazioa egiteko elkarrizketa klinikoa. Erizainaren harreman profesionala pazientearekin eta familiarekin. Laguntza-harremana.

52. gaia: erizaintza-balorazioa eta -zaintzak otorrinolaringologiaren alorreko arazo nagusietan: otitisa, Mènièreren gaixotasuna. Erizaintza-prozedura eta -teknikak: audiometria, sudurreko frotisa egitea. Epistaxia.

53. gaia: pazientearen zaintza kirurgiaren ostean. Zaintza- eta kontrol-teknikak kirurgiaren ostean. Horri lotutako prozedurak: zauriak sendatzea, drainadurak kontrolatzea, oreka hidrikoa, jostura, eta puntuak eta agafeak kentzea.

54. gaia: balorazio geriatriko integrala: klinikoa (anamnesia eta azterketa fisikoa), funtzionala (Barthel eskala), mentala (egoera kognitibo eta afektiboa baloratzea, PHEIFFER testa, MMSE) eta soziala. Sindrome geriatrikoak. Mendekotasun-gradua baloratzea.

55. gaia: Epidemiologia: kate epidemiologikoa. Gaixotasun transmitigarriak. Gaixotasun transmitigarriak prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak. Derrigorrez aitortu beharreko gaixotasunak. Osasunaren alorreko prebentzio-neurriak: kontzeptu orokorrak. Antiseptikoak. Desinfektatzaileak. Desinfekzioa, esterilizazioa (esterilizazio-metodoak, esterilizatutako materiala manipulatzeko eta kontserbatzea). Hondakin sanitarioen kudeaketa.



56. gaia: paziente kronikoen arreta. Ikuspegia, oinarriak eta garapen estrategikoa. Erizaintzaren alorreko zaintzak paziente kroniko eta haien senideentzat; bereziki, paziente kroniko pluripatologiko konplexuaren prozesu integratua.

57. gaia: medikamentuen sailkapen orokorra: botiken xurgapena eta kanporatzea. Toxizitatea eta albo-ondorioak. Farmakozaintza. Kontrako efektuak jakinaraztea. Medikamentuak nola kontserbatu. Medikamentuak neurritz erabiltzea.

58. gaia: medikamentuak ematea: segurtasun kliniko farmakoak ematean. Emateko modua: definizioa eta motak. Hautaketa-puntuak, teknikak eta arazo ohikoenak. Dosiak kalkulatzeko. Atxikidura terapeutikoa: kontzeptua eta esku hartzea.

59. gaia: erabiltzailearen eskubidea eta betebeharrak. Pazientearen autonomia, eta informazio eta dokumentazio klinikoari dagokionez dituen eskubide eta obligazioak.

60. gaia: Espainiako Erizaintzaren Kode Deontologikoa. Sekretu profesionala: kontzeptua eta araupetze juridikoa. Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Legearen 199. artikulua.



II. ERANSKINA

BASAURIKO «ETXE MAITIA» ZENTROAN (AUTONOMIA PERTSONALERAKO KOMUNITATE- ETA EGOITZA-LAGUNTZARAKO UDAL ZENTROA) LANGILE LAN-KONTRATUDUN MODUAN SARTZEKO HAUTAPROBETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

Zein postutarako:

Datu pertsonalak	
Abizenak:	
Izena:	NAN edo AIZ zbk.:
Helbidea:	
Herria:	
Helbide elektronikoa:	Telefonoa:

Eskatutako titulazio akademikoa

AITORTUTAKO MEREZIMENDUAK

Merezimendu profesionalak

Sektore publikoan emandako zerbitzuak			
Lanpostuaren izena	Entitatea	Aldia	
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:
		Noiztik:	Noiz arte:

